


MODERNITATEAREN BIDEAK *Ez Dok Amairu eta garaia*



Irigaray Imaz, Jose Angel
Idazlea

1936-39 gerla ondoko egoera hitsean euskaldungoa azpiraturik eta ordezkatzeko bidean zegoen hegoaldean. Maila guztietan. Iparraldean, nahiz eskubide formalak indarrean egon, XX. mendean bi mundu gerla eta Aljeriakoaz gain, frantziar estatuaren nazionalismoa anitzez eraginkorrako bilakatu zen (politikan, hezkuntzan -Loi Ferry-, komunikabide berrietan...); faktore horien konstelazioa baitezpadakoa izan zen, eta da, higidura inoizko sakonen areagotuz joateko. Baina, desberdintasunak desberdintasun, euskaldungoa, oraindik ere eta berriz ere, ez zen iraungia. Errautsetatik ere hasi zen arrapizten eta garatzen: lan mundutik kultur dinamika anitzera (literatura, antzerkia, kantua, dantza, artea...) hezkuntza bideetan barna.

Eta errealitate horren aztertze, eta ulertze -beste edozein errealitate bezala-, *instituitua eta instituyente* sozialaren dialektika egokia izan daiteke. Maila guztietan antzeko gertatzen da: ordena eta kaosa, munduaren azala/orografia eta horren baitan dagoen magma-labea, hura etengabe moldatzen duena, kontziente eta subkontziente mailak, are fisika aurreratueneko kategoriak, eta beste hainbat. Gurean, sozietateari datxekionez, ñabardura kualitatiboa da: *instituitua* ordezkatzailerik eta funtsean bertako *instituyentetik* eratorria ez denez, egingai den *instituyente* hori trabaturik dago ohiko ez den dialektikan.

Dena den, lehen bezala orain ere, *instituyente* hori, tradizionalki, jai, inaute eta antzeko herri ospakizunetan azaldu eta adierazi/gauzatu izan ohi da nabarmenen, orobat, guti edo anitz, herri-kulturaren beste adierazpenetan, zenbait bertso saio barne... Sozialki onartu maneran, gainera, ospakizun ziklo eta errituetan txertatuak, jendartearen osotasuna -agerikoa eta ezkutukoa- gogoan.

Eta egingai den ahalmen hori, badenean, gauza izan ohi da herdoildurik, ezabatuxe edota, barne-husturik, *axaleko* bilakaturik datekeen herri-kulturaren biziartzeko. Halakoetan, apaingarri hutsa izateari utziz, tradizioa beldurrik gabe eguneraturik, gai da sozietatean txertatzeko berriz, emankor, jori. Adibidez, denboraren trena galduz ia *bete-laneko* ildoan gelditzeko arriskuan zen bertsoarritza, aurrekariak ez ezik bere baitan osagai biziak ere zeutzan-eta, izan ziren egoera horretatik bertsoarritza eta bertsoarritza aterarazteko eta garatzeko gaitasuna ukan zutenak; ondorioa, egungo egoera eredugarria. Edota, beste alor baterat joz, herri antzerki-erak (libertimendu, karrusak, toberak...) abantzu edukirik gabeko jarduera bilakatzeko bidean zirelarik, haietan zeutzan joera, ikuskera, kode eta balioak *-instituituan* ezabatuak eta *instituyentean* lozorroan- ezagutuz, beraietan barnatuz eta sortuz, berriz ere haiek bere zituzten bizia eta sozietate zeutzaren berreskuratzeko desmarxan muntazko urratsa egin zen, aspaldi honetako eskaintzetan ikus daitekeen bezala.

Abantzu barne-husturiko kultur erak izatetik, berpiztu-eta sorkuntzazko lurraldean kokatuz, egungo kultur jardueran txertatuak izatera. *Instituyentea* aski larri bai, baina ez zegoen hilik. Halakoetan, bakanak, baina beti izaten dira egoera kualitatiboki aldatzeko gai diren sortzaile eta kulturgileak...

Horiek hola, 50eko hamarkadaren bukaera aldera eta 60ko hamarkadaren hasieran, ideia, urrats eta ekintza berriak garatzen hasi ziren, sozialki azaltzen eta gauzatzen - egingai zen mundua- sistemak uste eta uzten zuen baino haraxeago; aurreikuspen guztiei buru eginez, beraz, hein batean bederen *instituitzen*. Eta hori sozietatearen arlo guztietan. Arte plastikoetan bide aitzindariak jorratzen hasiak ziren, euskal artea, lehen aldiz, garaikide zen, are abangoardia. Eragileak lehentxeago aipatu sortzaile eta kultur gile mota horietarik; orenen buru, Oteiza. Haren eragina baitezpadakoa izan zen. Arte abangoardian ibilki (Sao Pauloko IV. Biurtekoa, 1957, *Propósito Experimental*), ikuspegi berria ekarri zuen, begi garaikidea (hutsaren kontzeptua, isiltasunarena, arte integralarena, gauza eta jarduera arrunten arte maila eta halako besteren munta). Horren itzalean bide oparora ematen zuen atea zabaldu zen. Ilusioa piztuz, autoestimua goratuz, giro horren arrimuan bide berriak jorratzen hasi ziren. Erran gabe doa, *Instituituriko* sistema menderatzailean, trabaz eta zailtasunez beteriko bideak.

Jorge Oteizak 1963an argitaratu zuen hain eragin handia ukanen zuen *Quosque tandem...!* liburua. Euskal kulturaren berpizkundea bultzatze aldera, kultur dinamika berria sortzen buru-belarri saiatu zen. Arte plastikoetan taldeak sortu zituen: Gaur Gipuzkoan, Bizkaian Emen, Orain Araban, Nafarroan Danok eta, gerorako utzia, Baita Iparraldean. Euskal Arte Garaikidearen Eskolaren fundazio agiria kaleratu zuen... Nahiz gauza anitz eta eskola bera ez gauzatu, hainbat kultur arlotan eragin zuen dinamika- ren erdigunean zen: dantza munduan, antzerkian, poesian, zineman, arkitekturan, soziologia mailan... Hor zebiltzan, aipatutakoaz gain, eta besteak beste, antzerkian, tradizio eguneratuan biziago zen Iparraldekoaz gain (Larzabal, Monzon...), Jarrai taldea (garaikide lanak taularatzen: Camus, Durrenmat...) edota herri kulturaren oinarri- tuagoko Oiartzungo Intxixu taldea, Nestor Basterretxea eta Fernando Larruquert zine-

man (*Alkezar, Pelotari, Ama-Lur...*), dantzan Urbeltzek gidatu Argia taldea, galduak edota azalean geldituak ziren dantzak berreskuratzen eta zentzuz eta edukiz bermatzen, arkitekturan (Luis Peña Gantxegiren itzalpeko taldea) bide berriak jorratzen... eta antzeko maneran *Ez Dok Amairu* taldea kantagintzan.

Garai hartan aire berriak zebiltzan munduan. Pop eta rockaren hastapenak, folk berri-tua, kantu engaiatua eta kantautoreak... Atahualpa Yupanki, Violeta Parra eta Victor Jara, Bob Dylan, Pete Seeger, Joan Baez, Donovan, The Beatles eta The Rolling Stones, Georges Brassens, Jacques Brel, Barbara eta abarren garaiak ziren. Giro horretan, anto-lamendu eta eredu mailan, baina, hemen Kataluniako *Nova Cançò* mugimenduak eragin zuzenagoa izan zuen. Publikoaren aitzinean 1961ean aurkeztua, fite *Els Setze Jutges* izena hartu zuen.

Gurean hedaturik zeuden koruak, zortzikoteak, kantutegi tradizionalak, musika klasiko... Baina herri-kantuen ondarea arras murriztua zen, higatua kantatzeko ohitura, salbu-eta, oraindik ere, Zuberoan eta, hein apalagoan, Baxenabarre eta Lapurdin. Kantagintza berriak, folklorizatze eta apaingarri mailan gelditzeko egoera gaindituz, dinamika berria abiarazi zuen. Herri kulturaren oinarritua eta garaiko errealtatean txertatua, bertan eta munduan. *Ez Dok Amairu* taldea arrago horretan sortua bezainbat dinamika horren sortzaile eta eragile izan zen.

Taldea sortu aurretik aire berriko zenbait bakarleri eta talde hasiak ziren ordurako. Nemesio Etxaniz apaiz azkoitiarrak *Kanta kantari* kantutegia kaleratu zuen 1951n. Bertan, haur-jolasak, maitasun-kantak eta izadi-abestiak bildu zituen. Liburu horretan, kanpotik sartzen hasiak ziren haizeen aurrean, euskal kantagintza berri baten beharra aldarrikatzen zuen, doinu zaharrak letra berri erakargarriagoekin jantziz edota kantu berriak sortuz. *Ez dok amairu* taldea sortu aurreko bilera batzuetara agertu ohi zen, baita hasierako zenbait kontzertutara joan ere. Baina urrats nagusia egin zuena Michel Labéguerie izan zen: uztaiztarra, sendakina eta Kanboko alkatea. Euskaltzaleen Biltzarrekoa eta politika mugimenduetan engaiatua. Itzal handiko pertsona. Musikazale zenez, joera berriko lehen kantuak sortu zituen lagunartean kantatzeko, arras herri tradizioan txertatuak eta molde berriak emanak. Ñabardura, baina, funtsezkoa zen: bere baitarik sortuak, itzultzen edota kopiatzen ibili gabe eta herriaren askatasun egarriarekin bat eginik. Jauzi kualitatiboa zen: euskaldunok ere geure kantua sor genezakeen geure baitarik, egoerari zegozkion gaiekin, garaiari zegozkion estilo, molde eta maneran. 1963an Goiztiri argitaletxearekin atera zituen bi disko txikiak zirrara ikaragarria eragin zuten Euskal Herriko bazter guztietan. Lurralde berria fundatuz, euskal kantu berriaren aitaponteko bilakatu zen.

Horretaz gain, aurreko giroan beste zenbait talde ere aipatu beharko liriateke, nahiz beste ildotan barna zebiltzan: Bilboko Soroak taldea, Jose Antonio Billar dantzatzeko kantuekin (*Ez dok amairu* taldearen hasierako zenbait kantalditan ere parte hartu zuen) eta beste zenbait oraino.

Kataluniako *nova cançõren* eraginean funtsezkoa izan zen Mikel Laboaren bitartekari-tza, Bartzelona eta Donostia artean eman baitzituen 1964-65 urteak. Gehienbat lehen-dik garatzen hasiak ziren urratsen trinkotzeko balio izan zuen, horrela sortu baitzen tal-dea. Lurdes Iriondo hasia zen ordurako kantari bere kasa, orobat Julen Lekuona edota Benito Lertxundi. Joxean Artze txalapartarekin zebilen grabazio esperimentalak egiten. Ildo desberdinetan zebiltzan beste zenbait kulturgile ere biltzen hasi ziren, horien arte-an Xabier Lete. Hasierako bilerak Donostiako Kursaal antzoki zaharreko sotoetan egin ziren. 1965aren bukaera aldera, taldearen ideia azaldu zitzaion Oteizari eta egun bere-an bururatu zitzaion *Ez dok amairu* izena: hamahiru zenbakiaren madarikazioa -herriak bizi zuen patua- hautsi nahiz eta aurrera jo beharrez. Logotipoa, berriz, Gaur taldean zebilen Remigio Mendiburu eskultore hondarribiarrak egin zuen: txalaparta bat.

Hasieran jende asko pasatu bazen ere, urratsak egin ahala taldea finkatuz joan zen. Batzuk taldearen bizitza osoan, beste zenbait tarte batzuetan baizik ez.

Iparra zen kantu zaharrak berreskuratzea eta berrezagutaraztea (ez bakarrik ondare aberatsa zirelako, haietan mendeetan zehar garaturiko biziera, ikuskera eta estiloaren gako-ak zeutzelako baizik), garaiko moldeetara ekarriak, eta bizitzen ari zeneko munduari -taldekideen munduari- zegozkion kantu berriak sortzea, sorkuntzan murgiltzea. Eta dena azpiegitura fisiko eta mentala garatuz, baldintzak sortuz eta hobetuz... Egin behar-raren kontzientzia baldin bazen ere, funtsean, inor/ezer *salbatzea* bainoago, sorkuntza bideak jorratzea zen helburu eta indar eragile; 'nahia' eta 'beharra' uztartuxe, beraz.

Lehenengo emanaldiak Jarrai antzerki taldeak antolatu zituen: Hernanin 1966ko urta-rrilaren 9an eta Donostian, Victoria Eugenia Antzokian, urtarrilaren 23an. Irunen, 1966ko martxoaren 20ko jaialdian, azaldu zen lehen aldiz *Ez Dok Amairu* izena. Baina, hasieran, edonon eta edonola jo behar izan zen: frontoi, plaza edo areto izan, musika ekipo kaxkarrekin; taldearen prestakuntza artistiko-musikala ere xumea zen, naski.

Denborak aurrera egin ahala, kantaldietan duintasun gutxieneko bat erdiesten saiatzea izan zen helburu nagusietarik bat, hau da, gutxieneko kalitate maila bat, eskaintzen zenaren aldetik eta azpiegitura aldetik, euskal kultura garatzea, lehenengo eta behin, egiten ari zena ahalik eta hobekien egitetik hasten baitzen. Erantzukizuna, beraz, oina-rri bezainbat helburu zen. Holako planteamenduen aitzinean ez zen falta izan ikuspe-gi eskasik. Euskal kulturak (gaizki ulertutako) amateur-militantziaz baizik egiten ez den kultura izan behar omen zuen; betikoa: edo sinboliko mailan, idealizatua, edo maila eskas eta ez-nahikoan gauzatua; biak ala biak, errealtatean benetan txertatu ezinik, azpigaratuak... eta derrotistak. Agiri bat egin eta argitaratu behar izan zuen taldeak (*Gure jokabidearen berri*, 1970eko urtarrilaren 11n *Zeruko Argia* aldizkarian, ondoko egunetan *Anaitasunan*) afera horien eta beste zenbaiten inguruan gogoetatuz eta joera zikiragarriak kritikatu.

Gaur begi bistakoak badirudite ere, artean ez zen hola gertatzen, zenbaiten artean bereziki. Hortik nabarmendu behar izana herriak luzerako balioko duten kultur molde-

ak behar zituela, horretarako lan handia egin behar zela hainbat arlotan. Lan hori, beste edozein lan bezalaxe, nahiz arras maila ttipian izan, ordaindu egin behar zela, artista jantziz joan ahal izan zedin. Sorkuntzarako tartea, eguneroko eginkizunetatik landarat gelditzen dena soilik baldin bazen, ezinezkoa zela axalkerietatik ateratzea. Kausa baten edo bestearen aldeko hamaika jaialditan ibili eta gero, edota horrekin batera, euskal kultura biziko bazen, nahitaezkoa zela lanari seriozki lotzea. Taldean garbi zegoen hori norberaren lana ahalik eta hobekien egitetik hasten zela.

Tartean, nola ez, benetako agintearen aldetikako debekuak, zentsurak eta egoera zailak ez ziren eten. Kanpotik taigabeko presio eta eraso eta barnetik, ez gutxitan, joera eskasak. Hor *instituituriko* sistema menderatzailearen eta - estatus soziala lortze aldera- *instituitu* beharrez garatzen ari zen dinamikaren arteko talka nabarmendu zen, tartean falta ez zelarik etxeko zenbaiten laguntza.

Hala ere, taldea aurrerabideari zerraion. Zerbait integralago, eta artistikoki hobea, egite aldera, kantua lantzearekin batera, poesia... eta eszenifikazioa. Horrela sortu zen *Baga Biga Higa Higa* sentikaria (Portugaleten estreinakoz eskainia, 1970eko abuztuan). Gero Euskal Herriko hiriburuetan eta hainbat herritan eskaini zena, baita kanpoan ere: Bartzelonako Romea Antzokian hiru egunez (jende eta kritikoen aburuz arrakastaz), Pauen, Brest-en (Bretainian)...

Arte integralaren ideia denengan zetzan. Taldearen baitan aipatutako garapenez gain, pintore-eskultoreekin, Argia dantza taldearekin, Jarrai antzerki taldearekin, arkitektoekin, zinemagileekin... hainbat kultur aste, ekitaldi eta egitasmo garatu ziren Euskal Herrian barna. Garaiko kultur dinamikaren eragile ziren, hainbat non euskal kultura aitzindari eta erreferente izatea erdietsi baitzuten, are erdaldunen artean ere (gauzatu ahal izan ez ziren ekimen interesgarri zenbait barne; adibidez, Iruñerako landu eta proposatu zen kultur aste integral eta parte-hartzailea, erabat aitzindari hemen eta Europan; ondotik, arte-eskola garaikidea garatze aldera, Iruñeko Artes y Oficios eskolan erotik txertatzeko proposamena eta guzti. Ondikotz, *goizegi* zen Iruñean holako proposamen bat onartua izan zedin).

Jokalekuari datxekionez ere, Ipar eta Hego, herri eta hiri, dena, bere zereginen espazio naturaltzat zeukan. Sustraitua eta, era berean, irekia izanik, oihartzuna herri mailan bezainbat hiritar giroan bildu zuen, taldearen jarrera, estilo eta estetika erabat berriak baitziren, ohikoak ez ziren hiritar eta kosmopolita tankerakoak; antzera aipatutako gainerako taldeenak.

Beste zenbait kantari ere azalduak ziren ordurako: besteak beste, Etxamendi eta Larralde, Beñat Sarasola, Manex Pagola... Taldea laster zen harremanetan tratatua haiekin: ugariak ziren elkarrekin ematen ziren kontzertuak, egiten ziren bilerak. Orobat beste zenbait kantari eta musikarirekin. Bertsolariekin ere maiz kolaboratzen zen: Xalbador, Mattin, Uztapide eta, bereziki, Azpillaga eta Lopategi, garai hartan azken horiek izan baitziren bide berri horietan gehien inplikatu zirenak, gaietan eta jarreran.

Beste kulturetako kantariak ere ekarrarazi zituen eta herrian aurkeztu (Raimon, Pi de la Serra, Guillermina Mota, Pete Seeger, Barbara Dane...). Bidaide zen Jarrai taldeak, berriz, Ricard Salvat antzerkigile katalana, Living Theatre; Argia taldeak Europako hainbat dantza eta musikari talde...

Komunikabideei dagokienez, Loiola Herri Irratia izan zen taldekoen kantuak ezagutarazten eta zabaltzen baitezpadako lana egin zuena. Han lan egiten zuen taldekide izana zen Joxe Mari Iriondok, eta irratian grabatzen zituen gero irratiz emanen zituen kantuak; eta hori munta handikoa zen, hain zen eskasa oraindik diskogintza. Irratiari esker, beraz, herritarren artean ikaragarri zabaldu ziren. Beste zenbait komunikabidek ere, maila apalagoan, osagarri lana egin zuten (Segura Irratia, Jose M^a Sedano Radio Vitorian, Jose Luis Bengoa Herri Irratian eta Radio Bilbaon, Jabier Pagola Iruñeko Radio Requetén...). Aldizkarietan, *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* izan ziren gehien nabarmendu zirenak kantagintza berria eta aipaturiko beste kultur dinamikak sozializatzen. Egunkari nagusietan baziren oihartzun egiten zirenak eta publiko zabalari begira, beraz, bretxa ireki zutenak (Javier Aranburu Donostiako *La Voz de España*, Miguel A. Astiz Bilboko *La Gaceta del Norte*, Jean B. Dirassar *Sud-Ouesten* eta abar).

Diskogintza ere, zaila izateaz gain, jorratu gabeko arloa zen. Hasieran, editatzeko baimenik ez. Lehen diskoak, Iparraldeko Club du Disque Basque eta Goiztirin agertu ziren, gero, 1965ean, Bilboko Cinsa (Gereño anaiak), laster Edigsa katalanen itzalpean, 1968an Herri Gogoan, geroxeago Artezin ere bai... Hor ere bide berriak jorratu ahala, azpiegitura fisiko eta mentalak, ohiturak, sortu, landu eta finkatu beharrak ziren.

Garai hartan gertatu zen Arantzazuko biltzarra, 1968an. Bertan, jakina da, euskara batua aldarrikatu eta finkatu zen. Ezinbestean egin beharreko urratsa, nahiz planteatu eta formulatu moduarengatik ia mende laurdenean, lorpenen ondoan, euskalki eta batuaren uesteko kontrajarriaren polarizazio eta liskar eskasa pairatu behar izan. Taldean, euskara biziko bazen, aberasgarri ez-ezik baitezpadakotzat jotzen zen euskalki eta batuaren arteko elkarbizitza.

70eko hamarkadan aitzina joan ahala, baina, giro orokorra nahasiz joan zen. Metaturiko eskarmentuak ez zuela deusetarako balio zirudien; memoria eskasean, zabarkeria, kontsigna merke eta halako beste indarrean ezarri ziren. Anartean balio zuten irizpide, joera eta jarduerak, politikazko gaitasun ez-nahikoaz, axolagabeki ziren uzten ari bide bazterrean. Ataka hartan euskaldungoa orokorrean, politikazkotik kultur mailaraino, berriz ere nahi eta ezin gisako egoeran gertatu zen, iparra galdurik eta sakabanatuta. Horrek Ez Dok Amairu taldearen barnean ere eragin handia ukan zuen. Ondorioz, anartean zeuzkan trinkotasuna eta zentralitatea galduz, elkarren arteko konfiantza eta gaitasuna menderatzen hasi ziren, errezelok ugaritzen, talde izaera arrakalatzten. Eta hondarrean desegin zen.

Guztiarekin ere, muntazkoena modernitateranzko oinarri-ildoak erein eta finkatu izana dateke, errotuak bezainbat irekiak, herritar eta hiritarrak, bertakoak eta unibertsalak, aski

modu natural, berri eta emankorren. Bere xumean handi izan zen urratsa, kualitatiboa; eta hasi eta jorratu bidea itzulezina zen jada. Kantagintzara mugatuz, handik aitzina estiloz ikaragarri ugartu zen; kalitatez, azal eta mami, jantzi eta aberastu, sozietatean finkatu...

Oraindik ere, baina, garai hartako hainbat arte eta kultur sorkuntzak erreferente izaten dira egungo iruditeria kolektiboan, sozietate jardunean... Transmisioari datxekioenez, aldiz, *Aho bete hots* jardunaldi hauek adierazten dutena, agian, horixe da: inoiz ez dela berantegi.